

IDAZLE ONAK

Hil arte euskara ondu eta bikaindu egin beharko genuke. Beti ikas liteke zerbait, hitz egokiak, esaldi lirainak, atsotitz mamitsuak, esamolde zaluak. Dena dakiela uste duenak ez du aurrera egingo eta euskara txepela erabiliko du maiz. Euskara aberasteko bi dira bide nagusiak. Alde batetik euskaraz ongi dakitenekin mintzatzea. Euskal Herriko zazpi probintzietan adin handitako euskaldun zaharrak batez ere eskuarki oso ederki mintzaten dira. Eta horien artean baserritarrak eta laborariak. Gizaldiz gizaldi eta eguzkiz eguzki euskaraz elestatu dira eta beren buruetako muinetan euskara ongi oinarritua dago. Beren buruko ordenagailuan artxibo guztiak euskaraz osatuak daude. Edonork ez du, ordea, baserrietan bizi edo baserri-tarrekin hitz egiteko era. Holakoei bigarren bidea gelditzen zaie. Liburu bikainak irakurtzea. Euskara aberatsa eta guztirakoa duten liburuak. Zein dira liburu horiek? Asko eta asko. Nik Euskal Filologiako ikasleentzat zerrenda bat osatu nuen aspaldi. Hil diren idazle batzuk sartu nituen. Denak sartzerik ez dago eta norbaitek huts bat baino gehiago ikus lezake zerrenda horretan. Hortxe duzue, beraz, bat edo bati mesede egingo dion zerrenda hori.

EUSKARA BIKAINEZ IDATZITAKO ZENBAIT LIBURU

(HILDAKO IDAZLEENAK)

Oharra: AUSPOAn agertu diren liburu gehien-gehienak (ia 300) oso ongi idatzita daude.

AGIRRE-tar Toma: *Uztaro*.

AGIRRE, Txomin: *Auñamendiko lorea, Garoa, Kresala*.

AKESOLO, Lino: *Bere lan guztiak euskara bikainez idatzita daude*.

ALKAIN, Iñaki: *Gerrateko ibillerak*, Auspoa, 148,149,150.

APALATEGI, F: *Euskal mutillak armetan*, Auspoa, 3.

ATAÑO (Zapirain): *Txantxagorri kantaria*, Auspoa, 137-138 [aparteko ona].

ATXUKARRO: *Irriparrezko printzak*, Sendoa.

AXULAR: *Gero* [gailurra jotzen du].

AZKUE, Resurrección Maria: *Euskalerrriaren Yakintza*, (lau ale), Euskaltzaindia, Bilbao, 1989.

AZPIROZ, Jose: *Arbol zarraren kimuak*, Auspoa, 200.

AZPIROZ, Jose: *Gogoz kontrako pausoak*, Auspoa 203.

BARBIER, Jean: *Piarres*

BILBAO, Felix: *Ipuin-barreka* [gauza bazara, irakur orijinala, bizkaieraz: musika berezia du].

ELICEGUI, M: *Pello Errotaren bizitza*, Auspoa, 32 [bikaina, zinez].

ELIZANBURU, J.B.: *Piarres Adame*.

ETCHEBERRY J.B: bere liburu guztietan goi-goieneko euskara erabilzen du. (Erljio gaiak jorratzen ditu).

ETXEITA, Joseba: *Josetxo, Jaioterri maitea* (eleberri oso txepelak baina euskara ona).

IRAZUSTA, Jon A. *Joanixio*.

ITURRIAGA, A: *Ipuiak*, Auspoa, 25.

IDAZLE ONAK

- KARRIKA, Beñat: *Armendaritze haur begiez*, Auspoa, 210 [zin-zinenez bikaina].
- LARZABAL, P: AUSPOAk idazle honen liburu batzuk argitaratu ditu: 11,14,21. Larzabalek bazekian euskaraz.
- LAZKAO TXIKI: *Gertaerak eta txisteak*, Auspoa, 222.
- LOIDI, J.A.: *Amabost egun Urgainen*.
- MOGEL, Juan Antonio: *Peru Abarka*.
- ORIXE: *Augustin gurenaren aitorkizunak, Santa Kruz apaiza*.
- SALAVERRIA, S.: *Neronek tirako nizkin*, Auspoa, 38.
- URRUZUNO, P.M.: *Ipuinak* (hiru liburu argitaratuak. Honek idatzi. zuen guztia oso baliagarri da), Auspoa: 47,51.
- UZTAPIDE: *Lengo egunak gogoan*.
- ZAMARRIPA, Paulo: Bere lan guztiak oso onak.
- ZARATE, Mikel: Bere liburu guztiak aholkatzeko modukoak dituzue.

Gotzon Garate